

# Udako siesta bateko ametsa



**ENEKO OLASAGASTI**  
GIDOILARIA ETA ZINEMA  
ZUZENDARIA

Iratzargailua ipinita neukan Frantziako Tourreko etapako azken kilometroak ikusteko, baina esnatu naizenerako bukatuta zegoen. Loaren aztarnak gaintik kendu ezinik Twitterera jo dut sailkapena nola geratu den jakiteko eta ezusteko pozgarriarekin egin dut topo. Azken orduko albiste batek birtxio mordoia zeukan euskal txiolarien artean. Bolo-bolo ibilia zen eskaera baten inguruko albiste zen: Euskal Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren eraketa. Oraingoan, PNV-PSEren aldeko botoekin tramitera onartu du Gasteizko Parlamentuak. Kontxo, pentsatu dut, azkenean albiste on bat. Baina ez hori bakarrik. Albiste irakurtzen jarraitu eta hara non iragartzen den ere Euskal Ikus-entzunezkoen legea prestatzeko oinarriak ipiniko direla, Voxena izan ezik, Parlamentuan ordezkaritza duten alderdi guztien adostasunarekin. Esna nagoela baieztatu eta gero, ez da posible, pentsatu dut, gezurretako albiste behar du.

Irratia piztu dut albiste berehala baieztatzeko asmotan. Eta bai. Lerro buruetan lehenengo. Egia esan ez da

Ez da posible,  
pentsatu dut,  
gezurretako albiste  
behar du.  
Irratia piztu dut  
albiste berehala  
baieztatzeko asmotan.  
Eta bai

gutxiagorako. Segidan, zuzeneko konexioa Gasteizko Legebiltzarrarekin. Hitzez hitz baieztatu dute Twitteren irakurritakoa. Eta ez hori bakarrik. Berriari Kultur sailburuaren hitzak gehitu dizkiote, bigarren albiste potolo bat iragartzeko: "Eragile desberdinekin elkarriketak hasi ditugu Euskal Antzerki Konpainia Nazionalaren sorrerarako pausoak ematen hasteko. Azken batean konturatu gara egin beharreko diru inbertsioa ez dela hainbesterainokoa, ez

behintzat, AHTaren kilometro baten kostuarekin alderatzen badugu". Non nago?, pentsatu dut, Euskal Herrian?

Gaueko Teleberria ere albiste berdinarekin zabaldu dute, eta ez nolnahi gainera. Lehendakaria bera da pantailan ageri dena. "Ahalegin handia egin dugu azken urteetako norabidea zuzendu ahal izateko. Eskerrak eman nahi dizkiogu Pantailak Euskaraz ekimenari, plataforma handietan euskararen etorkizuna bermatu nahi izanagatik. Hemendik aurrera, plataforma garrantzitsuarekin sinatu dugun akordioari esker, bermatu egingo baitira bai euskarazko azpidatziak eta baita bikoizketa ere haurrei zuzendutako filmetan. Bestetik esan, EITBrekin dagoen Kontratu Programa birplanteatuko dugula, urtean bospasei euskarazko pelikulatan parte hartu dezan. Bat handia izateko txiki asko egin behar direlako", esanez bukatu du Iñigo Urkulluk.

Iratzargailuak jo du. Etapa azken kilometroetan da. O'Connorrek irabazi du. Lehen euskalduna, Pello Bilbao, hamaikagarren postura jaitsi da. Zenbakiak orain ere kontra. ●

## Lan eskaintzak

### Harreman Instituzionalerako Arduraduna (irailan hasteko)

#### Funtzioak:

- Babesle/erakundeekin harremana eta jarraipena. Babesle-kartera zabaltzea.
- Proposamen ekonomikoak prestatu eta aurkeztea.
- Deialdi publikoen kudeaketa eta jarraipena.
- Hitzun komunitateetako eragileekin proiektu batzuk kudeatu.

#### Eskaintzen da:

- Orduzko malgua eta 3-12 hilabete arteko probaldiaren ondotik, kontratu mugagabea.

### Lankidetzatza teknikaria (lan poltsa osatuko da)

#### Funtzioak:

- Hitzun komunitateetako eragileekin proiektuak kudeatu.
- Euskal Herriko proiektuak kudeatu.
- Diru laguntza deialdiak formulatu.
- Proiektuak komunikatu web orrian, sare sozialetan eta hedabideetan.

#### Eskaintzen da:

- Garabideko lan-poltsan sartzea.

Curriculumak uztaillaren 22a baino lehenago [garabide@garabide.eus](mailto:garabide@garabide.eus) helbidera "Deialdia-Harreman Instituzionalak" ala "Deialdia-Lankidetzatza Teknikaria" erreferentziarekin.

Xehetasun gehiagorako:  
[www.garabide.eus](http://www.garabide.eus)

**garabide**  
**eragile**